Perpaus bakunak eta konposatuak

Gogoratu

- **Perpaus bakuna**: **aditz bakarra** duen perpausa.
- **Perpaus konposatua**: **aditz bat baino gehiago** dituen perpausa.

1. Idatzi zenbat aditz dauden perpaus hauetan.

• Argi ona erabili behar da irakurtzeko.	
• Sukaldaria izango banintz, postreak egingo nituzke beti.	
• Arratsaldeetan gitarra jotzen dut seietatik zortzietara.	
• Trenetik jaitsi, kalera irten, eta hantxe aurkituko duzu liburutegia.	
• Handia naizenean, munduko mendirik altuenak igoko ditut.	
• Hamar mila biztanleko muga gainditu du gure herriak.	

2. Lotu bi zutabetako esaldiak esaldi konposatuak egiteko.

Berandu oheratzen naiz	•	•	**bihar azterketa daukadalako.**
Urduri nago	•	•	**kolorez beteko zait sala.**
Arrainak arrantzontzian sartzen baditut,	•	•	**pianista ona izateko.**
Asko praktikatzen dut	•	•	**jartzeko argazkiak web orrialdean.**
Aitak esan dit	•	•	**futbol-partida dagoenean.**

3. Zein dira perpaus bakunak (B) eta zein konposatuak (K)? Adierazi.

• Maialenen osaba eskiatzailea da, eta nirea, irakaslea.	
• Berogailua itzaliko bagenu, izoztu egingo ginateke.	
• Anderrek oso indartsua dela uste du, baina gehiago entrenatu behar du.	
• Musika-talde ospetsu bat osatuko dugu.	
• Elur gutxi egin duen arren, Naroaren gurasoak eskiatzera joango dira asteburuan.	
• Baratzean bildu genituen fruituekin konpota egin genuen.	

liveworksheets.com